**AKTEA/15**

# BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

**(2026-06-23)**

| | |
|---|---|
| **Batzarraren izaera:** | Ohikoa |
| **Deialdia** | 1. deialdia |
| **Data:** | 2026-06-23 (Asteartea) |
| **Lekua:** | Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia |
| **Hasiera-ordua:** | 08:56 |
| **Amaiera-ordua:** | 09:06 |
| **Alkate-Presidentea:** | NEMEH SHOMALY NADIA |
| **Batzordekideak:** | ORTUZAR BUTRON XABIER<br>CARUEZO UGALDE MAITE<br>ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA |
| **Bertaratu ez direnak:** | URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE |
| **Idazkaria:** | BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON |

**Aztergaiak**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-06-16 TGB (14)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- Erreñe-Zubi 18 zenbakiko eraikinean patio barruko fatxadetan SATE sistema instalatzeko eta bitarteko osagarriak jartzeko obra-lizentziaren onartzea.

4.- Eupeme Deuna, 12 eraikinean egurrezko hainbat elementuren egiturazko sendotze puntualeko eta saneamenduko obrak egiteko lizentzia onartzea.

5.- Kurtzio kalea 7 zenbakiko eraikineko ipar-mendebaldeko fatxadan eta mehelin-horman birgaitze energetikoa egiteko eta dagozkion bitarteko osagarriak jartzeko obra-lizentzia onartzea.

6.- Lea-Artibaialdeko hedabideak S.M-gaz, 2026ko dirulaguntza izendunaren hitzarmena onartzea.

7.- Landabaso industrialdeko Elkartearekin hitzarmena siñatzea onartzea, 2026ko Industrialdeen dirulaguntzarako (BFA).

8.-Alkatetza dekretuen berri emotea. Ekainak 8-12.

9.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

**1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-06-16 TGB (14)**

Bertaratutako batzarkideek 2026ko ekainak 16ko 14/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.**

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik ez daukatela adierazi dute.

**3.- ERREÑE-ZUBI 18 ZENBAKIKO ERAIKINEAN PATIO BARRUKO FATXADETAN SATE SISTEMA INSTALATZEKO ETA BITARTEKO OSAGARRIAK JARTZEKO OBRA-LIZENTZIAREN ONARTZEA.**

**Xedea**

Erreñe-Zubi 18 zenbakiko eraikinean patio barruko fatxadetan SATE sistema instalatzeko eta bitarteko osagarriak jartzeko obra-lizentziaren.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2025eko maiatzaren 26an sarrera eman zitzaion Bermeoko Udalaren Erregistro Orokorrean ERREÑE ZUBI 18KO JABE ELKARTEAk aurkeztutako obra-lizentzia eskaerari, eraikineko patio barruko fatxadetan SATE sistema instalatzeko eta obrako bitarteko osagarriak jartzeko.

Espedientearen arabera, 2025/00007291 sarrera-erregistroarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu da, besteak beste:

- Interesdunaren eskaera;
- “PROYECTO DE EJECUCIÓN. INSTALACIÓN DE SATE EN FACHADAS DE PATIO INTERIOR. C/ ERREÑE-ZUBI 18. BERMEO” izeneko exekuzio-proiektua, J.P.Z eta D.M.G de A. arkitektoek idatzia;
- Andamioei buruzko memoria eta planoak;
- Kontrataren aurrekontua eta dokumentazio grafikoa.

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua hirurogeita hamabi mila berrehun eta berrogeita zortzi euro eta berrogeita bost zentimokoa da (72.248,45 €).**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 27an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2026ko ekainaren 18an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko maiatzaren 26an aurkeztu zen proiektua; ondoren 2026ko maiatzaren 27an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*"Aurkeztutako memoriaren arabera, jarduketaren helburua da eraikinaren patio barruko fatxaden portaera termikoa hobetzea kanpo-isolamendu termikoko sistema baten bidez. Horretarako, IVAS TERMOK8 MINERALE LV motako SATE sistema homologatua aurreikusten da, 80 mm-ko lodierako beira-artilezko panelez osatua.*

*Leihoetako horma-hegala eta atalburuak isolatzeko STIFERITE/XPS panelak aurreikusten dira, baita liho azpiko isurialde berriak jartzea ere.*

*Halaber, honako jarduketak aurreikusten dira:*

- *fibro-zementuzko plakak kentzea goiko aldean;*
- *estalkiko eskailera-kaxaren iragazgaiztea;*
- *fatxadako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa;*
- *euri-uren zorroten berriak;*
- *eta obra gauzatzeko aldamio tubularrak, karga-igogailua eta kendutako hondakinen toberak jartzea. "*

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 27an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

*"Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen kalterik gabe, teknikari honek aldeko txostena ematen du Erreñe-Zubi 18ko eraikinean patio barruko fatxadetan SATE sistema instalatzeko eta dagozkion bitarteko osagarriak jartzeko obra-lizentzia ematearen alde.*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Lizentzia, hala badagokio, ondorengo baldintzen menpe emango da:*

***5. Lizentziaren baldintzak***

***5.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak***

*-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.*

*-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.*

*-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie.*

*-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera,* ***hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa bederatzi mila eta bostehun eurokoa da (9.500,00 €). Horren %120 aplikatuta, hondakinen kudeaketarako fidantza hamaika mila eta laurehun eurokoa (11.400,00 €) izango da****.*

*-Urbanizazioan edo jabari publikoan sor daitezkeen kalteei erantzuteko, obrak hasi aurretik dagokion bermea jarri beharko da. Berme hori egikaritze materialaren aurrekontuaren %2koa izango da, hondakinen kudeaketa, segurtasun eta osasun eta kalitate-kontroleko partidak kenduta.*

*-Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren Exekuzio Materialaren Aurrekontua (PEM) 72.248,45 eurokoa da, eta hortik kanpo geratzen dira EZ04 Segurtasun eta Osasuna (550,00 €), EZ05 Kalitate Kontrola (350,00 €) eta EZ06 Hondakinen Kudeaketa (9.500,00 €) kapituluak. Ondorioz,* ***urbanizazio publikoari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko kalkulu-oinarria hirurogeita bat mila zortziehun eta berrogeita zortzi euro eta berrogeita bost zentimokoa da (61.848,45 €).***

*Indarrean dagoen* ***udal araudiaren arabera aplikatu beharreko %2ko***



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

***ehunekoa kontuan hartuta**, urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteengatiko **bermea mila berrehun eta hogeita hamasei euro eta laurogeita hemeretzi zentimokoa (1.236,97 €) izango da**.*

*-Aurkeztutako planoen arabera, obra gauzatzeko beharrezkoa izango da Telleatxe Tar Josu kalean bi aparkaleku okupatzea, obra-etxola, komun kimikoa eta hondakinen aldi baterako biltegiratzea kokatzeko, baita karga-igogailua dorrea eta lotutako bitarteko osagarriak instalatzea ere. Okupazio hori ez da obra-lizentzia honen barruan sartzen eta dagokion jabari publikoaren okupazio-baimena modu independentean izapidetu beharko da.*

*-Aldamioak, karga-igogailua, kendutako hondakinetarako toberak, edukiontziak, obra-etxolak, pilaketak edo jabari publikoa okupatzen duen edozein bitarteko osagarri jartzeko, dagokion baimen independentea eskatu beharko da, beharrezko dokumentazio teknikoa aurkeztuta. Okupazio horri dagozkion tasak udal ordenantza fiskalen arabera likidatuko dira, okupatutako azalera, iraupena eta erabilitako elementuen arabera.*

*-Okupatutako espazio publikoak behar bezala hesitu, seinaleztatu eta babestu beharko dira, oinezkoen igarobide segurua une oro bermatuz.*

*-Obrak sei hilabete baino gehiago iraungo balu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2 artikuluaren arabera eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.*

*-Fibrozementuzko plakak kentzeko lanak amiantoa duten materialak manipulatzeko baimendutako enpresa espezializatu batek egin beharko ditu. Obrak hasi aurretik, hala badagokio, dagokion Lan Plana aurkeztu beharko da, Lan Agintaritzak onartua, amiantoaren esposizio-arriskua duten lanetarako aplikatzekoa den araudiaren arabera.*

***5.2. Obra gauzatzeko baldintza teknikoak***

*-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Udalari jakinarazi beharko zaio.*

*-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.*

*-Erabilitako SATE sistemak, sistema homologatua izan beharko du, eta obra amaieran benetan instalatutako sistemaren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da.*

*-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.*

*-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean, trazadura ordenatua, lerrokatua eta mantentze-lanetarako irisgarria bermatu beharko da.*

*-SATE sistemaren gainean egiten diren finkapen guztiek zubi termikorik gabeko sistema homologatuak erabili beharko dituzte.*

*-Obrak hasi aurretik, fatxadako estalduraren egoera egiaztatu beharko da, eta estalduraren askatze-arriskua duten eremuak kendu beharko dira, proiektuan aurreikusitakoaren arabera.*

*-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena.*

*-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.*

*-Karga-igogailuaren instalazioak eta materialen igoera/jaitsierako eragiketek ezin izango dute oinezkoen edo ibilgailuen segurtasuna arriskuan jarri, eta beharrezkoa bada, maniobra puntualetan behin-behineko babes-neurri osagarriak ezarri beharko dira.*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-Obra gauzatzean, ahal den neurrian, portalerako eta erabileran dauden lokalen sarbidea bermatu beharko da.*

*-Obrak gauzatzean espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.*

*-Obrak dirauen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.*

*-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.*

*-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.*

***5.3.– Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak***

*-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.*

*-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.*

*-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

*-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte.*

*-Lerrokadurak errespetatuko dira eta ezin izango da eraikigarritasuna handitu.*

***5.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:*

*-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.*

*-Obraren azken likidazio bisatua.*

*-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.*

*-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.*

*-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.*

*-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.*

*-Eraikinaren eraberritutako egoeraren* ***Energia Efizientziaren Ziurtagiria*** *aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatua, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izan ere, jarduketak eraikinaren inguratzaile termikoan eragin nabarmena du, energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeen bidez.*

*-Era berean, instalatutako SATE sistemaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.*

*-Behin betiko egoeraren argazkiak.*

***6. Ondorioak***

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du Erreñe-Zubi 18ko Jabe Elkarteak eskatutako obra-lizentzia ematearen alde, aurkeztutako proiektuaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe."*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko maiatzaren 26an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu:

- Interesdunaren eskaera;
- "PROYECTO DE EJECUCIÓN. INSTALACIÓN DE SATE EN FACHADAS DE PATIO INTERIOR. C/ ERREÑE-ZUBI 18. BERMEO" izeneko exekuzio-proiektua, J.P. Z eta D.M.G. de A arkitektoek idatzia;
- Andamioei buruzko memoria eta planoak;
- Kontrataren aurrekontua eta dokumentazio grafikoa.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko maiatzaren 27an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, 2026ko ekainaren 18an.

<u>Laugarrena</u>.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2.artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia indarrean sartu baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

**Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (5.545,62 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **11.400,00** eurokoa izango da.

**Urbanizazioan sor daitezkeen kalteak**

Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik ezarri beharreko bermea **1.236,97** eurokoa izango da.

**Erabakia**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko maiatzaren 26an, Erreñe Zubi 18 Jabe Elkarteak, eraikineko patio barruko fatxadetan SATE sistema instalatzeko eta obrako bitarteko osagarriak jartzeko aurkeztutako obra-lizentzia **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.

-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.

-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie.

-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, **hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa bederatzi mila eta bostehun eurokoa da (9.500,00 €). Horren %120 aplikatuta, hondakinen kudeaketarako fidantza hamaika mila eta laurehun eurokoa (11.400,00 €) izango da**.

-Urbanizazioan edo jabari publikoan sor daitezkeen kalteei erantzuteko, obrak hasi aurretik dagokion bermea jarri beharko da. Berme hori egikaritze materialaren aurrekontuaren %2koa izango da, hondakinen kudeaketa, segurtasun eta osasun eta kalitate-kontroleko partidak kenduta.

-Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren Exekuzio Materialaren Aurrekontua (PEM) 72.248,45 eurokoa da, eta hortik kanpo geratzen dira EZ04 Segurtasun eta Osasuna (550,00 €), EZ05 Kalitate Kontrola (350,00 €) eta EZ06 Hondakinen Kudeaketa (9.500,00 €) kapituluak. Ondorioz, **urbanizazio publikoari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko kalkulu-oinarria**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**hirurogeita bat mila zortziehun eta berrogeita zortzi euro eta berrogeita bost zentimokoa da (61.848,45 €).**

Indarrean dagoen **udal araudiaren arabera aplikatu beharreko %2ko ehunekoa kontuan hartuta**, urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteengatiko **bermea mila berrehun eta hogeita hamasei euro eta laurogeita hemeretzi zentimokoa (1.236,97 €) izango da**.

-Aurkeztutako planoen arabera, obra gauzatzeko beharrezkoa izango da Telleatxe Tar Josu kalean bi aparkaleku okupatzea, obra-etxola, komun kimikoa eta hondakinen aldi baterako biltegiratzea kokatzeko, baita karga-igogailua dorrea eta lotutako bitarteko osagarriak instalatzea ere. Okupazio hori ez da obra-lizentzia honen barruan sartzen eta dagokion jabari publikoaren okupazio-baimena modu independentean izapidetu beharko da.

-Aldamioak, karga-igogailua, kendutako hondakinetarako toberak, edukiontziak, obra-etxolak, pilaketak edo jabari publikoa okupatzen duen edozein bitarteko osagarri jartzeko, dagokion baimen independentea eskatu beharko da, beharrezko dokumentazio teknikoa aurkeztuta. Okupazio horri dagozkion tasak udal ordenantza fiskalen arabera likidatuko dira, okupatutako azalera, iraupena eta erabilitako elementuen arabera.

-Okupatutako espazio publikoak behar bezala hesitu, seinaleztatu eta babestu beharko dira, oinezkoen igarobide segurua une oro bermatuz.

-Obrak sei hilabete baino gehiago iraungo balu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2 artikuluaren arabera eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.

-Fibrozementuzko plakak kentzeko lanak amiantoa duten materialak manipulatzeko baimendutako enpresa espezializatu batek egin beharko ditu. Obrak hasi aurretik, hala badagokio, dagokion Lan Plana aurkeztu beharko da, Lan Agintaritzak onartua, amiantoaren esposizio-arriskua duten lanetarako aplikatzekoa den araudiaren arabera.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.

-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.

-Erabilitako SATE sistemak, sistema homologatua izan beharko du, eta obra amaieran benetan instalatutako sistemaren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da.

-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.

-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean, trazadura ordenatua, lerrokatua eta mantentze-lanetarako irisgarria bermatu beharko da.

-SATE sistemaren gainean egiten diren finkapen guztiek zubi termikorik gabeko sistema homologatuak erabili beharko dituzte.

-Obrak hasi aurretik, fatxadako estalduraren egoera egiaztatu beharko da, eta estalduraren askatze-arriskua duten eremuak kendu beharko dira, proiektuan aurreikusitakoaren arabera.

-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena.

-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.

-Karga-igogailuaren instalazioak eta materialen igoera/jaitsierako eragiketek ezin izango dute oinezkoen edo ibilgailuen segurtasuna arriskuan jarri, eta



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

beharrezkoa bada, maniobra puntualetan behin-behineko babes-neurri osagarriak ezarri beharko dira.

-Obra gauzatzean, ahal den neurrian, portalerako eta erabileran dauden lokalen sarbidea bermatu beharko da.

-Obrak gauzatzean espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.

-Obrak dirauen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.

-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.

-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.

**Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak**

-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.

-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.

-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte.

-Lerrokadurak errespetatuko dira eta ezin izango da eraikigarritasuna handitu.

**Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

-Obraren azken likidazio bisatua.

-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.

-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.

-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.

-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.

-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.

-Eraikinaren eraberritutako egoeraren **Energia Efizientziaren Ziurtagiria** aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatua, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izan ere, jarduketak eraikinaren inguratzaile termikoan eragin nabarmena du, energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeen bidez.

-Era berean, instalatutako SATE sistemaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.

-Behin betiko egoeraren argazkiak.

HIRUGARRENA.- Lizentzia honek indarra izan dezan, ezinbestekoa izango da aurretiaz aipaturiko bermeen gordailua udal diruzaintzan:

- Hondakinen kudeaketagatiko fidantza: 11.400,00 euro.
- Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik: 1.236,97 euro.

LAUGARRENA.- Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 72.248,45 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak eskatzen duen gutxiengo edukiari dagokionez,



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

SEIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

ZAZPIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZORTZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**4.- EUPEME DEUNA, 12 ERAIKINEAN EGURREZKO HAINBAT ELEMENTUREN EGITURAZKO SENDOTZE PUNTUALEKO ETA SANEAMENDUKO OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Eupeme Deuna, 12 eraikinean egurrezko hainbat elementuren egiturazko sendotze puntualeko eta saneamenduko obrak egiteko lizentzia.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2025eko otsailaren 11n sarrera eman zitzaion Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean Eupeme Deuna 12ko Jabekideen Erkidegoak



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aurkeztutako obra-lizentzia eskaerari, aipatutako eraikinean egurrezko hainbat elementuren egiturazko sendotze puntualeko eta saneamenduko obrak egiteko.

Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu zen, besteak beste:

- Obra-lizentzia eskatzeko instantzia orokorra;
- BAU Arkitektoak-ek idatzitako egikaritze proiektua;
- Dokumentazio grafikoa;
- Ordezkaritza eta erregistroari lotutako dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, proposatutako jarduketaren helburua eraikinaren erdisotoko lokaleko forjatuan eta beheko eskuinaldeko etxebizitzaren sabaian dauden hondatutako egurrezko elementu jakin batzuen egiturazko sendotze puntual eta saneamendua egitea da.

Zehazki, aurreikusitako jarduketek honako hauek hartzen dituzte barne:

- Xilofagoek kaltetutako egurrezko habe txiki batzuk ordeztea edo indartzea;
- Euskarri galera duen egurrezko habe baten alboko indartzea;
- Hezetasunak kaltetutako egurrezko zutabe baten oinarriaren konponketa puntuala;
- Egurrezko elementu berriei xilofagoen aurkako babes-tratamenduak aplikatzea.

Memoriak berariaz adierazten du esku-hartzea puntuala dela, eraikinaren barrualdean kokatzen dela eta ez duela aldatzen eraikinaren bolumetria, kanpo-konfigurazioa edo hiri-irudia.

Era berean, eraikina Bermeoko Hirigune Historikoaren barruan kokatzen da eta PERHIren arabera oinarrizko babes-mailako eraikin katalogatua da.

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua sei mila laurehun eta hogeita sei euro eta**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**hogeita bost zentimokoa da (6.426,25 €).**

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 25ean, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2026ko maiatzaren 25ean, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko otsailaren 11n aurkeztu zen proiektua, eta 2026ko maiatzaren 25ean egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*"Memoria eraikitzaileak aurreikusten du jarduketa-eremuetan aurretiazko apeoak eta apuntalamenduak egitea, bai eta zenbait pieza estruktural egurrezko pieza berriekin ordeztea edo suplementatzea ere, lehendik daudenen ezaugarri baliokideekin, lotura torlojudunak eta babes-tratamendu espezifikoak erabiliz.*

*Hezetasunak kaltetutako zutabearen oinarriaren konponketari dagokionez, proiektuak honako hau aurreikusten du berariaz:*

*"Hezetasunak kaltetutako zutabearen oinarria suplementatuko da; aurretiaz apuntalatu eta beheko zatia zerratu ondoren, antzeko dentsitateko egurrezko protesi bat jarriko da, bi piezak enkolatuta eta tirafondoz lotuta edo konektore metaliko bidez elkartuta, eta adreiluzko kajeatu edo oinarri baten gainean ezarria lurzoruarekiko kontaktu zuzena saihesteko. Protesiaren neurriak: 0,70 m altu x 0,40 m zabal x 0,20 m sakon."*

*Hala ere, aurkeztutako dokumentaziotik ez da ondorioztatzen indusketak, rebajeak edo lurzoruaren gaineko zuzeneko afekzioak egitea aurreikusten denik; aitzitik, jarduketa euskarri estrukturalaren gaineko azaleko konponketa puntual gisa planteatzen da.*

*Era berean, proiektuak DB-SE eta DB-SE-M dokumentuen araberako egiturazko justifikazioa jasotzen du egurrezko elementu berrientzat, bai eta*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*aurreikusitako iraunkortasun-, erresistentzia- eta babes-baldintzei buruzko erreferentziak ere.”*

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 25ean, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

**“*4. Lizentziaren baldintzak***

***4.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak***

*-Lizentzia honen eraginkortasuna baldintzatuta geratzen da eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza aurrez gordailutzera, 112/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz.*

*-Aurkeztutako proiektuan* ***hondakinen kudeaketarako*** *473,25 €-ko partida ekonomikoa jasotzen denez, ezarri beharreko* ***fidantzaren zenbatekoa****, partida horren %120 aplikatuta,* ***bostehun eta hirurogeita zazpi euro eta laurogeita hamar zentimokoa (567,90 €) izango da.***

*-Obrei ekin aurretik, proiektuan aurreikusitako apeo, apuntalamendu eta behin-behineko egonkortze neurri guztiak hartu beharko dira, obren exekuzioan eraikinaren egonkortasuna bermatzeko.*

*-Obrak hasi aurretik, obren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena aurkeztu beharko da, hala badagokio.*

***4.2.– Obra gauzatzeko baldintza teknikoak***

*-Obrak aurkeztutako eta ikus-onetsitako dokumentazio teknikoarekin bat etorriz gauzatu beharko dira, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita.*

*-Baimendutako esku-hartzea proiektuan definitutako barneko eta izaera puntualeko jarduketetara mugatzen da; ezin izango dira aldatu eraikinaren bolumetria, kanpo-konfigurazioa, fatxadak, estalkia edo babestutako elementuak.*

*-Egurrezko elementu estruktural berriek proiektuan eta CTEko DB-SE-M dokumentuan aurreikusitako ezaugarri mekanikoak, hezetasun-baldintzak eta*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*tratamendu babesleak bete beharko dituzte.*

*-Hezetasunak kaltetutako zutabearen oinaren konponketa proiektuan definitutako soluzioaren arabera gauzatu beharko da; hau da, egurrezko protesi baten bidezko suplementazioa egingo da, adreiluzko oinarri edo kajeatu baten gainean ezarria, lurzoruarekiko kontaktu zuzena saihesteko.*

*-Lizentzia hau ematerakoan kontuan hartu da aurkeztutako proiektuak ez duela aurreikusten indusketarik, lur-erauzketarik, hutsarazterik edo lurzoruaren gaineko bestelako afekziorik.*

*-Hala ere, eraikina Bermeoko Hirigune Historikoaren babes-eremuan eta babes arkeologikoko eremuan kokatzen denez, obren exekuzioan zehar lurzorua ukitzen duten indusketak, kajeatuak, rebajeak edo proiektuan aurreikusi gabeko lur-mugimenduak egitea beharrezkoa balitz, Udalak dagokion kontrol arkeologikoa, zundaketa arkeologikoak edo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen arloko baimen edo txostenak eskatu ahal izango ditu, aplikatzekoa den ondare-araudiaren arabera.*

***4.3.– Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak***

*-Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa proiektuan aurkeztutako Hondakinen Kudeaketa Azterlanaren eta 112/2012 Dekretuaren arabera egingo da.*

*-Obrak eraikinaren barrualdean soilik gauzatuko direnez eta ez denez aurreikusten espazio publikoan edo urbanizazio-elementuetan afekziorik, ez da eskatuko urbanizazio publikoa lehengoratzeko fidantzarik.*

*-Obrak gauzatzean aztarna arkeologikorik, interes kulturaleko elementurik edo ustekabeko aurkikuntzarik agertuz gero, obrak berehala eten beharko dira ukitutako eremuan eta egoera Udalari eta Kultura Ondarearen arloko organo eskudunari jakinarazi beharko zaie.*

***4.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*-Obra amaitzean, dagokion Amaierako Obra Ziurtagiria aurkeztu beharko da, zuzendaritza fakultatiboak sinatua.*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

*-Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen fidantza itzultzeko, hondakinen azken kudeaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, behar bezala justifikatuta eta egiaztatuta, indarrean dagoen araudiaren arabera.*

***5. Ondorioak***

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta txosten honetan ezarritako baldintzak betez gero, aldeko txostena ematen da Eupeme Deuna 12ko Jabekideen Erkidegoak sustatutako "Egurrezko hainbat elementuren egiturazko sendotze, saneamendu eta ordezkapen puntualerako Egikaritze Proiektua" izeneko jarduketarako obra-lizentzia emateari dagokionez."*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko otsailaren 11n egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu: obra lizentzia eskatzeko instantzia orokorra, BAU arkitektoak enpresak idatzitako egikaritze proiektua, dokumentazio grafikoa eta ordezkaritza eta erregistroari lotutako dokumentazioa.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko maiatzaren 25ean egin zuen txostena; baita urigintza teknikariak ere.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7.artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1.artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215.artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia indarrean sartu baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

1. **Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (**473,25 €**), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **567,90** €-koa izango da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko otsailaren 11n, 14917635 NAN zenbakidun jaunak, Eupeme Deuna, 12 Jabe Elkartearen izenean, eraikin bereko egurrezko hainbat elementuren egiturazko sendotze puntualeko eta saneamenduko obrak egiteko eskatutako lanen obra-baimena **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Lizentzia honen eraginkortasuna baldintzatuta geratzen da eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza aurrez gordailutzera, 112/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz.

-Aurkeztutako proiektuan **hondakinen kudeaketarako** 473,25 €-ko partida ekonomikoa jasotzen denez, ezarri beharreko **fidantzaren zenbatekoa**, partida horren %120 aplikatuta, **bostehun eta hirurogeita zazpi euro eta laurogeita hamar zentimokoa (567,90 €) izango da.**

-Obrei ekin aurretik, proiektuan aurreikusitako apeo, apuntalamendu eta behin-behineko egonkortze neurri guztiak hartu beharko dira, obren exekuzioan eraikinaren egonkortasuna bermatzeko.

-Obrak hasi aurretik, obren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena aurkeztu beharko da, hala badagokio.

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

-Obrak aurkeztutako eta ikus-onetsitako dokumentazio teknikoarekin bat etorriz gauzatu beharko dira, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita.

-Baimendutako esku-hartzea proiektuan definitutako barneko eta izaera puntualeko jarduketetara mugatzen da; ezin izango dira aldatu eraikinaren bolumetria, kanpo-konfigurazioa, fatxadak, estalkia edo babestutako elementuak.

-Egurrezko elementu estruktural berriek proiektuan eta CTEko DB-SE-M dokumentuan aurreikusitako ezaugarri mekanikoak, hezetasun-baldintzak eta tratamendu babesleak bete beharko dituzte.

-Hezetasunak kaltetutako zutabearen oinaren konponketa proiektuan definitutako soluzioaren arabera gauzatu beharko da; hau da, egurrezko protesi baten bidezko suplementazioa egingo da, adreiluzko oinarri edo kajeatu baten gainean ezarria, lurzoruarekiko kontaktu zuzena saihesteko.

-Lizentzia hau ematerakoan kontuan hartu da aurkeztutako proiektuak ez duela aurreikusten indusketarik, lur-erauzketarik, hutsarazterik edo lurzoruaren gaineko bestelako afekziorik.

-Hala ere, eraikina Bermeoko Hirigune Historikoaren babes-eremuan eta babes arkeologikoko eremuan kokatzen denez, obren exekuzioan zehar lurzorua ukitzen duten indusketak, kajeatuak, rebajeak edo proiektuan aurreikusi gabeko lur-mugimenduak egitea beharrezkoa balitz, Udalak dagokion kontrol arkeologikoa, zundaketa arkeologikoak edo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen arloko baimen edo txostenak eskatu ahal izango ditu, aplikatzekoa den ondare-araudiaren arabera.

**Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak**

-Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa proiektuan aurkeztutako Hondakinen Kudeaketa Azterlanaren eta 112/2012 Dekretuaren arabera egingo da.

-Obrak eraikinaren barrualdean soilik gauzatuko direnez eta ez denez



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aurreikusten espazio publikoan edo urbanizazio-elementuetan afekziorik, ez da eskatuko urbanizazio publikoa lehengoratzeko fidantzarik.

-Obrak gauzatzean aztarna arkeologikorik, interes kulturaleko elementurik edo ustekabeko aurkikuntzarik agertuz gero, obrak berehala eten beharko dira ukitutako eremuan eta egoera Udalari eta Kultura Ondarearen arloko organo eskudunari jakinarazi beharko zaie.

**Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

-Obra amaitzean, dagokion Amaierako Obra Ziurtagiria aurkeztu beharko da, zuzendaritza fakultatiboak sinatua.

-Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen fidantza itzultzeko, hondakinen azken kudeaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, behar bezala justifikatuta eta egiaztatuta, indarrean dagoen araudiaren arabera.

HIRUGARRENA.- Lizentzia honek indarra izan dezan, ezinbestekoa izango da aurretiaz aipaturiko bermeen gordailua udal diruzaintzan:

- Hondakinen kudeaketagatiko fidantza: **567,90** euro.

LAUGARRENA.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, proiektuan agertzen den kontrataren aurrekontutik aterata, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 6.426,25 eurokoa litzateke (**4.907,55** euro hondakinen kudeaketa, segurtasuna eta osasuna eta kalitate kontrola kontuan izan gabe).

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215.artikuluak eskatzen duen gutxiengo edukiari dagokionez, honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

SEIGARRENA.- Bermeoko Hirigune Historikoaren babes-eremuan eta babes arkeologikoko eremuan kokatzen denez, obren exekuzioan zehar lurzorua ukitzen duten indusketak, kajeatuak, rebajeak edo proiektuan aurreikusi gabeko lur-mugimenduak egitea beharrezkoa balitz, Udalak dagokion kontrol arkeologikoa, zundaketa arkeologikoak edo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen arloko baimen edo txostenak eskatu ahal izango ditu, aplikatzekoa den ondare-araudiaren arabera. Hori dela eta, horren berri eman beharko da.

ZAZPIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

ZORTZIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

BEDERATZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

HAMARGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**5.- KURTZIO KALEA 7 ZENBAKIKO ERAIKINEKO IPAR-MENDEBALDEKO FATXADAN ETA MEHELIN-HORMAN BIRGAITZE ENERGETIKOA EGITEKO ETA DAGOZKION BITARTEKO OSAGARRIAK JARTZEKO OBRA-LIZENTZIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Bermeoko Kurtzio kalea 7 zenbakiko eraikineko ipar-mendebaldeko fatxadan eta mehelin-horman birgaitze energetikoa egiteko eta dagozkion bitarteko osagarriak jartzeko obra-lizentzia.

**Aurrekariak**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Lehenengoa.- 2025eko abuztuaren 20an, sarrera eman zitzaion Bermeoko Udalaren Erregistro Orokorrean KURTZIO 7KO JABEKIDEEN ERKIDEGOAk aurkeztutako obra-lizentzia eskaerari.

Espedientearen arabera, 2025/00011914 sarrera-erregistroarekin batera honako dokumentuak aurkeztu dira:

- "Proyecto de Rehabilitación Energética de Fachada Noroeste y Medianera del edificio sito en Kurtzio nº 7 – Bermeo" izeneko exekuzio-proiektua;
- Planoak;
- Plegua;
- Segurtasun eta osasun azterketa;
- Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa azterketa;
- Kalitate-kontrol programa;
- Aurrekontua;

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua ehun eta hirurogeita hamahiru mila bostehun eta berrogeita zortzi eurokoa da (173.548,00 €).**

Bigarrena.- 2026ko ekainaren 15ean, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2026ko ekainaren 18an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko abuztuaren 20an aurkeztu zen proiektua; ondoren 2026ko ekainaren 15ean egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*“Aurkeztutako memoriaren arabera, jarduketaren helburua Kurtzio kaleko 7 zenbakiko eraikinaren ipar-mendebaldeko fatxadaren eta ekialdeko mehelin-hormaren portaera energetikoa hobetzea da, eraikinaren inguratzaile*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*termikoaren zati batean kanpo-isolamendu termikoko sistema (SATE) instalatuz.*

*Proiektuan adierazten denez, jarduketaren helburua da Kurtzio 5 eta Kurtzio 7 atariek osatutako eraikin-multzoaren fatxaden tratamendua bateratzea, Kurtzio 5eko atarian aurretik egindako birgaitze-lanen irizpide estetiko eta arkitektonikoei jarraikiz. Horretarako, jatorrizko proiektuan aurreikusitako material eta akaberak aplikatuko dira multzo osoan, bolumenetako batean zeramikazko xafla-estaldura eta bestean akabera akriliko zuria erabiliz, eraikinaren irudi bateratua eta homogeneoa bermatzeko.*

*Jarduketaren barruan, fatxaden gainean kanpo-isolamendu termikoko sistema instalatzea aurreikusten da, eraikinaren energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko helburuarekin. Horretarako, lehendik dagoen kanpo-estaldura egokitu eta sistema berriaren euskarri gisa prestatuko da.*

*Halaber, jarduketa osagarri hauek aurreikusten dira:*

- *Kanpoaldeko isolamendu termikoko sistema (SATE) instalatzea.*
- *Kanpoko estalduraren berrikuntza.*
- *Leiho-inguruen tratamendua.*
- *Fatxadako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa.*
- *Fatxadan dauden fibro-zementuzko elementuak kentzea, hala badagokio.*
- *Obra gauzatzeko beharrezkoak diren aldamioak, karga-igogailuak eta gainerako bitarteko osagarriak jartzea."*

Bigarrena.- 2026ko ekainaren 15ean, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

*"Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen kalterik gabe, teknikari honek* ***aldeko txostena*** *ematen du Kurtzio 7ko eraikinean aurkeztutako birgaitze energetikoko obretarako obra-lizentzia ematearen alde.*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Lizentzia, hala badagokio, ondorengo baldintzen menpe emango da:*

***5. Lizentziaren baldintzak***

***5.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak***

*-Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuaren 39. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hala badagokio, eraikinaren jabetzak energia-auditoretza egin dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.*

*-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.*

*-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.*

*-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie.*

*-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera,* ***hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa lau mila ehun eta hiru euro eta berrogeita hamar zentimokoa da (4.103,50 €). Horren %120 aplikatuta, hondakinen kudeaketarako fidantza lau mila bederatziehun eta hogeita lau euro eta hogei zentimokoa (4.924,20 €) izango da.***

*-Aurkeztutako dokumentazioan ez da definitzen obra gauzatzeko erabiliko diren bitarteko osagarrien kokapena, ezta jabari publikoan izan dezaketen okupazioa ere. Hori dela eta, jabari publikoa okupatu behar izanez gero, dagokion okupazio-baimena aldez aurretik eskatu eta lortu beharko da.*

*-Aldamioak instalatu aurretik, teknikari eskudunak sinatutako dagokion dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da Udalean, eta aldamioa muntatu ondoren eta erabiltzen hasi aurretik, enpresa instalatzaileak emandako muntaketa zuzenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, aldamioa indarrean*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*dagoen araudiaren eta aurkeztutako dokumentazio teknikoaren arabera muntatu dela egiaztatzeko.*

***-****Urbanizazioan edo jabari publikoan sor daitezkeen kalteei erantzuteko, obrak hasi aurretik dagokion bermea jarri beharko da. Berme hori egikaritze materialaren aurrekontuaren %2koa izango da, hondakinen kudeaketa, segurtasun eta osasun eta kalitate-kontroleko partidak kenduta.*

*Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren Exekuzio Materialaren Aurrekontua (PEM) ehun eta hirurogeita hamahiru mila bostehun eta berrogeita zortzi eurokoa da (173.548,00 €), eta hortik kanpo geratzen dira Hondakinen Kudeaketa (4.103,50 €), Kalitate Kontrola (350,00 €) eta Segurtasun eta Osasuna (999,00 €) partidak. Ondorioz,* ***urbanizazio publikoari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko kalkulu-oinarria ehun eta hirurogeita zortzi mila eta laurogeita hamabost euro eta berrogeita hamar zentimokoa da (168.095,50 €).***

***Urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko****, Udal Zerbitzu Teknikoek aplikatutako kalkulu-irizpidearen arabera, egikaritze materialaren aurrekontuaren %2ko bermea ezartzen da; horrenbestez, dagokion* ***bermea hiru mila hirurehun eta hirurogeita bat euro eta laurogeita hamaika zentimokoa (3.361,91 €) izango da.***

*-Okupatutako espazio publikoak behar bezala hesitu, seinaleztatu eta babestu beharko dira, oinezkoen igarobide segurua une oro bermatuz.*

*-Obrak sei hilabete baino gehiago iraungo balu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2 artikuluaren arabera eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.*

*-Fibrozementuzko plakak kentzeko lanak amiantoa duten materialak manipulatzeko baimendutako enpresa espezializatu batek egin beharko ditu. Obrak hasi aurretik, hala badagokio, dagokion Lan Plana aurkeztu beharko da, Lan Agintaritzak onartua, amiantoaren esposizio-arriskua duten lanetarako*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aplikatzekoa den araudiaren arabera.

### *5.2. Obra gauzatzeko baldintza teknikoak*

*-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.*

*-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.*

*-Erabilitako SATE sistemak, sistema homologatua izan beharko du, eta obra amaieran benetan instalatutako sistemaren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da.*

*-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.*

*-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean,*

*-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena. Halaber, karga-igogailuaren instalazioak eta materialen igoera/jaitsierako eragiketek ezin izango dute oinezkoen edo ibilgailuen segurtasuna arriskuan jarri, eta beharrezkoa bada, maniobra puntualetan behin-behineko babes-neurri osagarriak ezarri beharko dira.*

*-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.*

*-Obra gauzatzean, ahal den neurrian, portalerako eta erabileran dauden lokalen sarbidea bermatu beharko da.*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-Obrak gauzatzean espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.*

*-Obrak dirauen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.*

*-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.*

*-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.*

***5.3.– Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak***

*-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.*

*-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.*

*-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

*-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte.*

*-Lerrokadurak errespetatuko dira eta ezin izango da eraikigarritasuna handitu.*

***5.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:*

*-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.*

*-Obraren azken likidazio bisatua.*

*-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.*

*-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.*

*-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Dekretuaren arabera.*

*-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.*

*-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.*

*-Era berean, instalatutako SATE sistemaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.*

*-Behin betiko egoeraren argazkiak.*

***6. Ondorioak***

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du Kurtzio 7ko Jabekideen Erkidegoak eskatutako obra-lizentzia ematearen alde, aurkeztutako proiektuaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe."*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Gure kasuan, 2025eko abuztuaren 20an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu:

- "Proyecto de Rehabilitación Energética de Fachada Noroeste y Medianera del edificio sito en Kurtzio nº 7 – Bermeo" izeneko exekuzio-proiektua;
- Planoak;
- Plegua;
- Segurtasun eta osasun azterketa;
- Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa azterketa;
- Kalitate-kontrol programa;
- Aurrekontua;

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia eman aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko ekainaren 12an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, 2026ko ekainaren 18an

<u>Laugarrena</u>.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

<u>Bosgarrena</u>.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia indarrean sartu baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

**Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5.artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (5.545,62 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **4.924,20** eurokoa izango da.

**Urbanizazioari eragin diezazkiokeen kalteak**

Urbanizazioari eragin diezazkiokeen kalteengatiko fidantza **3.361,91** eurokoa izango da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko abuztuaren 20an, Kurtzio 7ko Jabe Elkarteak, eraikin bereko ipar mendebaldeko fatxadan eta mehelin horman birgaitze energetikoa egiteko eta dagozkion bitarteko osagarriak jartzeko eskatutako



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

obra-lizentzia **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuaren 39.artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hala badagokio, eraikinaren jabetzak energia-auditoretza egin dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.

-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.

-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie.

-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, **hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa lau mila ehun eta hiru euro eta berrogeita hamar zentimokoa da (4.103,50 €). Horren %120 aplikatuta, hondakinen kudeaketarako fidantza lau mila bederatziehun eta hogeita lau euro eta hogei zentimokoa (4.924,20 €) izango da.**

-Aurkeztutako dokumentazioan ez da definitzen obra gauzatzeko erabiliko diren bitarteko osagarrien kokapena, ezta jabari publikoan izan dezaketen okupazioa ere. Hori dela eta, jabari publikoa okupatu behar izanez gero, dagokion okupazio-baimena aldez aurretik eskatu eta lortu beharko da.

-Aldamioak instalatu aurretik, teknikari eskudunak sinatutako dagokion dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da Udalean, eta aldamioa muntatu ondoren eta erabiltzen hasi aurretik, enpresa instalatzaileak emandako



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

muntaketa zuzenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, aldamioa indarrean dagoen araudiaren eta aurkeztutako dokumentazio teknikoaren arabera muntatu dela egiaztatzeko.

**-**Urbanizazioan edo jabari publikoan sor daitezkeen kalteei erantzuteko, obrak hasi aurretik dagokion bermea jarri beharko da. Berme hori egikaritze materialaren aurrekontuaren %2koa izango da, hondakinen kudeaketa, segurtasun eta osasun eta kalitate-kontroleko partidak kenduta.

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren Exekuzio Materialaren Aurrekontua (PEM) ehun eta hirurogeita hamahiru mila bostehun eta berrogeita zortzi eurokoa da (173.548,00 €), eta hortik kanpo geratzen dira Hondakinen Kudeaketa (4.103,50 €), Kalitate Kontrola (350,00 €) eta Segurtasun eta Osasuna (999,00 €) partidak. Ondorioz, **urbanizazio publikoari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko kalkulu-oinarria ehun eta hirurogeita zortzi mila eta laurogeita hamabost euro eta berrogeita hamar zentimokoa da (168.095,50 €).**

**Urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko**, Udal Zerbitzu Teknikoek aplikatutako kalkulu-irizpidearen arabera, egikaritze materialaren aurrekontuaren %2ko bermea ezartzen da; horrenbestez, dagokion **bermea hiru mila hirurehun eta hirurogeita bat euro eta laurogeita hamaika zentimokoa (3.361,91 €) izango da.**

-Okupatutako espazio publikoak behar bezala hesitu, seinaleztatu eta babestu beharko dira, oinezkoen igarobide segurua une oro bermatuz.

-Obrak sei hilabete baino gehiago iraungo balu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2 artikuluaren arabera eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.

-Fibrozementuzko plakak kentzeko lanak amiantoa duten materialak manipulatzeko baimendutako enpresa espezializatu batek egin beharko ditu. Obrak hasi aurretik, hala badagokio, dagokion Lan Plana aurkeztu beharko da, Lan Agintaritzak onartua, amiantoaren esposizio-arriskua duten lanetarako



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aplikatzekoa den araudiaren arabera.

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.

-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.

-Erabilitako SATE sistemak, sistema homologatua izan beharko du, eta obra amaieran benetan instalatutako sistemaren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da.

-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.

-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean,

-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena. Halaber, karga-igogailuaren instalazioak eta materialen igoera/jaitsierako eragiketek ezin izango dute oinezkoen edo ibilgailuen segurtasuna arriskuan jarri, eta beharrezkoa bada, maniobra puntualetan behin-behineko babes-neurri osagarriak ezarri beharko dira.

-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.

-Obra gauzatzean, ahal den neurrian, portalerako eta erabileran dauden lokalen sarbidea bermatu beharko da.

-Obrak gauzatzean espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.

-Obrak dirauen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.

-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.

-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.

**Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak**

-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.

-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.

-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte.

-Lerrokadurak errespetatuko dira eta ezin izango da eraikigarritasuna handitu.

**Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.

-Obraren azken likidazio bisatua.

-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.

-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.

-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.

-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.

-Era berean, instalatutako SATE sistemaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.

-Behin betiko egoeraren argazkiak.

HIRUGARRENA.- Lizentziak indarra izan dezan, honako zenbatekoak gordailatu beharko dira udal diruzaintzan:

- Hondakinen kudeaketagatik: 4.924,20 euro.
- Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik: 3.361,91

Fidantzak gordailatu arte, lizentzia honek ez du eraginik sortuko.

LAUGARRENA.- Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 173.548,00 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (**168.095,50** Hondakinen Kudeaketa, Kalitate Kontrola eta Segurtasun eta Osasun partidak kenduta).

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak eskatzen duen gutxiengo edukiari dagokionez, honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

SEIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

ZAZPIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZORTZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**6.- LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.M-GAZ, 2026KO DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN HITZARMENA ONARTZEA.**

**Xedea**

2026. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLgaz hitzarmena sinatzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2026. urterako udal Aurrekontuan, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLren aldeko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da eta, ondorioz, dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2026ko maiatzaren 29an, Idazkaritza Saileko teknikariak hitzarmenaren Justifikatze Memoria emon eban.

Hirugarrena: 2026ko maiatzaren 29an, Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa eman du.



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Laugarrena: 2026ko ekainaren 1ean Kontuhartzaileak aurretiazko fiskalizazio txostena eman du.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazinoen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. Artikulua hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluaren b), f) eta r) eta s) atalen arabera, alkateari dagokion arren, 2026ko otailaren 26ko 1.131 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2026. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLgaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Euskera Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

**7.- LANDABASO INDUSTRIALDEKO ELKARTEAREKIN HITZARMENA SIÑATZEA ONARTZEA, 2026KO INDUSTRIALDEEN DIRULAGUNTZARAKO (BFA).**

**Xedea**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bermeoko Udalaren eta Landabaso industrialdeko elkartearen arteko lankidetza hitzarmena sinatzea.

**Aurrekariak**

<u>Lehenengoa:</u> Bermeoko Udalaren eta Landabaso Industrialdeko elkartearen arteko erakunde-arloko lankidetza behar-beharrezkoa da indarrak bateratzeko, baliabideak koordinatzeko, eta horrela, Landabaso industrialdea hobetzean enpresen lehiakortasuna eta ingurumena hobetuko da.

<u>Bigarrena:</u> Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak 2026ko ekainaren 11n argitaratu du 58/2026 foru dekretua eta honen bidez, industrialdeetako dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2026 urterako.

<u>Hirugarrena:</u> Bermeoko Udalak Landabaso industrialdea hobetzeko helburuarekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren industrialdeak hobetzeko ezarritako dirulaguntza eskatu nahi du.

<u>Laugarrena:</u> Bermeoko Udalak dirulaguntza eskatzeko lankidetza hitzarmena sinatu behar du Landabaso industrialdeko elkartearekin.

<u>Bosgarrena:</u> Behargintzako zuzendariak 2026ko ekainaren 16an hitzarmenaren justifikazio memoria egin du.

<u>Seigarrena:</u> Bermeoko Udaleko Idazkaritzako AOT txosten juridikoa egin du 2026ko ekainaren 18an.

**Argudioak:**

<u>Lehenengoa</u>: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1.artikuluaren b), r) eta s) atalen arabera, alkateari dagokio, baina 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

**Erabakia**



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Dirulaguntza eskatzeko lankidetza hitzarmena sinatzea Bermeoko Udalaren eta Landabaso industrialdeko elkartearen artean.

BIGARRENA: Interesdunari erabakiaren barri ematea hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari erabakiaren barri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen barri ematea.

**8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Ez da ezer adierazi.

**9.- ESKARI ETA ITAUNAK**

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da izeneko dokumentu digitalean, aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espediente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskur

helbide honetako atari pribatuan:



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

DOCUMENTO: 20261487180
Datea: 26/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "**20260623_TGB.mp4**" izeneko dokumentu digitalean, "**Tokiko Gobernu Batzarra 23-06-2026**" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espediente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

**047f1a15bb8baff3e233c900559093cca0d0b897d2a78b439c7b8abd4741a61d**

uskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskur

helbide honetako atari pribatuan:

https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016B14C00L8G3B4Y2G2R2

Sinadurea eta datea

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 26/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2026 13:19:09

**DOCUMENTO: 20261487180**

Datea: 26/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia